

2deo



Euskarazko
ikus-
entzunezko
laborategia

TABAKALERA

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA



ZER DA 2deo?

Donostiako Tabakaleran kokatuta dagoen euskarazko ikus-entzunezkoen laborategia da 2deo, esperimentatzeko tokia.

Ikus-entzunezko proiektuekin egiten du lan; edukiak, ezaugarriak eta beharrak aztertzen ditu, profesionalen laguntza eskaini, eta baliabide teknologikoak eskura jarri. Esperimentazioa ikus-entzunezkoen ekoizpenaren arlo guztietan jorratzea da 2deoren xedea: sormen prozesuetan, zabalkundeetan, formatuetan, estetikan edota teknologian.

Horretarako, sektoreko profesionaleri prestakuntza eta informazioa eskaintzen dizkie, 2deo sektorearekin eta sektorearentzat jaioko baita, industrian eragiteko tresna gisa.



Honako hauek dira 2deoren erronka nagusiak:

Euskarazko ikus-entzunezkoen
ekoizpena eta kontsumoa handitzea.

Sormen testuinguru
berriak sustatzea.

Ekoizpen-eredu eta formatu
berrietan esperimentatzea.

Zabalkunde kanalak biderkatzea.

Sektorea osatzen duten
eragileekin elkarlana eta herritarren
partaidetza aktibatzea

Norentzat?

Ikus-entzunezko sektorean lanean ari diren profesionaleri zuzendutako laborategia da 2deo. Esperimentatzeko eta berrikuntzan lan egiteko grina duten ikus-entzunezko sektoreko profesionalentzako baliabidea izango da nagusiki. Laguntza edo informazioa bertan aurkituko dituzte, esperimentatu nahi izanez gero, erraztaileak laguntzeko prest, eta punta-puntako baliabide teknikoak esku-eskura.

Sektoreko profesionaleri zuzenduta dago laborategia, baina ikus-entzunezkoen inguruko ideiak dituen edonork egin lezake bere ekarpena. Esperimentatu nahi duzu?

Kontatu 2deomatoian. Zure ideia konfidentzialtasun osoz landuko dugu eta emango dizugu erantzuna.

ZERBITZUAK ETA BALIABI- DEAK

Profesionalen aholkularitzaz gain, honako baliabide hauek eskaintzen ditu:

Co-working-a

Edukien sorkuntza eta proiektuen prototipatzea zuzen-zuzenean lantzeko gunea. Erabiltzaileen eskura dauden goi mailako ekipamendu teknologikoekin hornitutako gunea da, hau da, ikus-entzunezko industria profesionalen erabiltzen diren ordenagailu eta edizio softwarekin. Baina erabiltzaileak nor bere gailuekin etorri eta 2deoko lan prozesuetara egokitzeko aukera ere eskaintzen du.

Co-working gunea ikus-entzunezko teknologien industrian liderra den Avid-en biltegitratze sistema partekatu batera dago konektatuta, eta honek, 2deoko eduki sorkuntza eta edizio gune guztietan garatuko diren lan prozesu zailenei ere erabateko malgutasuna eskaintzen die. Ikus-entzunezko edukien eta formatuen espektro zabal bat lantzeaz gain, HD-tik hasi eta 4K edota 8K-rainoko estandarretan lan egiteko prestatuta dago co-working gunea.



Edizio gelak

Edizio gela txikiak sorkuntza eta edizio esperientzia aurreratuago bat edukitera bideratuta daude, eta ikus-entzunezkoen punta-puntako prozesaketa egiteko gai diren ordenagailu eta ekipoekin daude hornituta.

Edizio- eta ikuskatze-gela

Ikuskatze-gela 4K HDR proiektzio eta monitorizazio sistemarekin, eta 7.1 audio sistemarekin hornitua dago. Goi mailako edukien edizioan, post produkzioko berezko sistemekin eta bereziki kolorimetrian lan egiteko baliabideak eskaintzen ditu. Gainera, kolore ediziorako Blackmagic-en Davinci sistema integratu da 2deoko lan prozesuetan. Ikuskatze-gela ere Avid-en biltegiratze sistema partekatura konektatuta dago, eta, ondorioz, baita 2deoko beste edizio postu eta sistema guztietara ere.

Ikuskatze-gela eduki sorkuntzako eta post produkzio-sareko kate ez-linealaren amaieran kokatzen da, 2deoko beste guneetan landutako kontzeptu eta edizioen erakusleho izanik. Post produkzioko ingesta, kontsolidazioa, “offline”, “online”, soinua edo kolore edizio prozesuen emaitza bistaratuko du 2deoko ikuskatze-gelak.

Horrez gain, gela erabilgarri dago lanak hirugarren bati erakusteko ere.



DEIALDIAK ETA PRO- GRAMA





Laborategian proiektuak lantzeko zedeoren deialdietara bidali daiteke proposamena. Dena den, deialdie-tako epeetatik kanpo ere zdeoko atea zabalik daude ikus-entzuzko proiektu bat esku artean duen edonor bere proposamena aurkeztera etor dadin.

Bestalde, ekitaldi programa bat ere eskaintzen du zdeok, sektorearentzat interesgarriak izan daitezkeen lantegi, hitzaldi eta eskola magistralekin.



HARRE- MANETA- RAKO

Harrera ordutegia:

Ekainaren 15etik irailaren 15era:

Astelehenetik ostiralera:

9:00-14:00

Irailaren 16tik ekainaren 14ra:

Astelehenetik ostegunera:

9:00-17:00

Ostiralak: 9:00-14:00

2deo@tabakalera.eu

Tlf. 943 011 311

Luzapena: 3047

TABAKALERA

(1. solairua)

Andre Zigarrogileak plaza, 1,
20012 Donostia/San Sebastián

www.tabakalera.eu




Figure 1: Floor plan diagram of a building with seven numbered rooms.



- 1 Sarrera/Entrada
- 2 zdeomatotia/zdeomatón
- 3 Harmaila/Grada
- 4 Co-working gunea /Zona Co-working
- 5 Bilera gela /Sala de reuniones
- 6 Edizio gela /Sala de edición
- 7 Ikuskatze-gela / Sala de visionado
- 8 Topagunea/Punto de encuentro
- 9 Bulegoa/Oficina